

Larratxoko jaiak

Larratxo jai giroan

Duela pare bat aste Bi-debietako Txanpontxo-ek jaien zurrunbiloan murgildu gintuzten. As-teburu honetan Larratxon izango dugu jai giroa. Hala ere, lasai hartu parrandazaleok, iraila bitartean jaiak izango baitituzue nonahi.

Sara Soria

Urtero bezala, haur, gazte zein helduentzako ekitaldi ugari izango ditugu auzoko jaietan, hilaren 7tik 10era bitartean. Haurrek txokolata jatearekin, erraldoekin eta buruhandiekin, eta danborradarekin auzoko festez gozatu dute. Aurten gainera, Popi eta Zaratrako pailazoan eta Txan Handia magoaren emaldiak izango dituzte.



Gazteentzat ere ez da ekitaldirik faltako jai hauetan. Koadrilen jaitsiera, esaterako, berezia da oso: koadrilek lasterketa egingo dute Galeoi plazatik hasita, aldapan behe-ra Josu Artetxe plazaraino. Musikari dagokionez, kontzertu ugari izango dira. Ostiralean, hilak 7, Azken Garraxia eta M.C.D. ariko dira; larunbatean Alaitz eta Maider; eta igande arratsaldean Astrozombies eta Demarras taldeak.

Hainbat ekitaldi adinduentzat

Ez pentsa, dena den, adinduek jaiekin gozatzeko aukera izango ez dutenik. Ostiralean, hilak 7, toka, bote eta igela jo-

Koadrilen jaitsiera ostiralean da

koetan parte hartu ahal izango dute. Bestalde, larunbatean, hamaiketako gozoa izango dute Gureak zahar etxean.

Kirolzaleek ere hitzordu bat baino gehiago izango dute Larratxoko festetan. Larunbat eguerdian Borroka Arteen erakustaldia egingo da eta arratsaldean, berriz, futbol txapelketaren finala jokatu da. Igandean herri kirolen txanda izango da: Perurena aita-semeak eta Mugerza eta Elorriaga aizkolariak ariko dira.



ARANDRA

HARATEGIA • FRUITUDENDA

BEREZITASUNAK:

- Bertako okela
- Urdaitegia
- Oilaskoak, arkumeak eta untxiak...

Zorionak larratxotar guztie!!!

Larratxo pasealekua, 20 • Tel.: 943 39 60 98



Jaietan ere antzerkia

Emakume Ausartak antzerki taldeak "Actrices" antzeziana taularatuko du Auzo Etxean hilaren 8an, larunbata. Ana Mari Goikoetxea, Maria Jose Fragoso, Maria Angeles Gonzalez eta Marian Fernandez aktore izandako hiru emakume eta casting batera bere burua aurkeztu duen laugarren baten larriuan aritu dira obra honetan.

Igandean herri kirolak

Hilaren 9an, igandea, esku pilota eta herri kirolak izango dira ikusgai. Izan ere, 11.30ean esku pilota txapelketa jokatuko da frontoian. 12.30ean berriz, Perurera aita-semeak eta Mugerza eta Elorriaga aizkolariak ikaste-txean ariko dira.



Zikiroa eta sagardoa

Aurten ere, nola ez bada, zikiro jana nabarmendu beharra dago, jaiotako ekitaldirik jendetsuena baita. Zikiro jana, igandean, hilak 9, egingo da Urtero bezala. Zugarramurdiko ohiturak gogora ekarriko dira, eta hamabost kiloko arkumea txingarretan erreko dute. Ahaztu behar ez den beste zibat Sagardo Egunarena da. Josu Artetxe plaza sagardotegi bihurtuko zaigu larunbat arratsaldean, eta bertara gerturatzen direnek, sagardoa edateaz gain, sardinak jan ahal izango dituzte.

Musika doinuak nonahi

Doinu gogorak izango ditugu ostralean. Azken Garraxia eta M.C.D. taldeek kontzertua emango dute eskolako patioan. Bestalde, Alaitz eta Maiderrek larunbateko dantzaldia alaituko dute. Azkenik, igandean, Astrozombies punk taldea eta Demarras ariko dira.



JATETXEA

GORA-BERA

TABERNA

Birmingham kalea 3 • GROS
Tel.: 943-27.35.04

TABERNA

PINTXOAK BOKATAK eta... GIRO JATORRA!

Gloria kalea 2
Tel.: (943) 285436

Kafea

Ramon Maria Lili pasealekua 2
Tfnos.: 943-32.17.13

GROS

Berezitasunak

- Gosariak
- Kafeak
- Pintxoak

07.30etatik aurrera irekita

el Txoko de Ramiro

Gracias

¡POR SU VISITA!

Dasta ezazu gure gastronomía eskaintza zabala

Txofre kalea 4 • GROS
Tel.: 943-27.97.99

BODEGA DONOSTIARRA

Hegaluzea, antxoa eta piperminaz egindako otarteko txikiak

Peña Gofit 13

TXANGAKI

Jose M. Soroa, 10 • Tel.: (943) 28 67 72

baduzu nora jo!

Larratxoko jaiak

Egitaraua

Ostirala 7

11.00 Toka, bote eta igel jokoa erretiratuentzat, ikastetxeko jolastokian

15.00 Musika giroa eta azoka

17.30 Txokolate jatea haurrentzat, Josu Artetxe plazan

18.30 Magia saioa Txan magoarekin, Josu Artetxe plazan

19.30 Musika koral kontzertua, Nazaretoko Jesus parrokiari

19.30 Erraldoiak eta buruhandiak, Donostiako gaiteroek lagunduta

20.00 Zezensuzkoa

20.15 Dantza Modernoen IV. Txapelketa

21.00 Koadrilen III. Jaitsiera, Galeoi plazatik

21.30 Afari herrikoia, Txirrita frontoian

23.00 Herri danborrada auzoko kaleetan zehar, Jatorrena txarangak lagunduta

00.00 Azken Garraxia eta M.C.D. taldeen kontzertua eskolako patioan. Dantzaldia Josu Artetxe plazan Avenida orkestrarekin

Larunbata 8

11.00 Aiton-amonentzako haizketakoa, Gureak zahar etxean. Toka eta Pote Txapel-



keta, Galeoi plazan

11.30 Popi-Zaratrako pailazokak, Josu Artetxe plazan

12.30 Borroka Arteen erakustaldia. Kimusubi eskolako ikasleek parte hartuko dute

15.00 Musika eta azoka

16.00 Umeentzako jolas parkea, Kolunpioen plazan: gaztelu puzgarriak eta zezen mekanikoa, besteak beste. Larratxoko futbol txapelketaren finalak

16.30 Tute Txapelketa, Kantauri tabernan. Mus Txapelketa,

Lanbroa tabernan

17.30 Larratxoko V. Sagardo Eguna, Josu Artetxe plazan. Erromeria Nerea, Maite eta Ilazki trikitilariekin. Aiton-amonentzako dantzaldia Hodei orkestrak lagunduta, Gureak zahar etxean.

18.00 Futbol txapelketa frontoian

19.30 Patata tortilla lehiaketa frontoian

20.00 Erraldoi eta buruhandiak

20.00 Emakume Ausartak an-

tzerki taldearen "Actrices" antzezlan. Auzo Etxean

21.30 Koadrilen II. Afari Herrikoia, eta ondoren trikipotea

22.00 Diskoteka frontoian

23.45 Zezensuzkoa

00.00 Alaitz eta Mainerren emanaldia eskolako jolastokian

00.00 Dantzaldia Miramar orkestrarekin

Igandea 9

03.00 Baraxuri zopa, frontoian

09.30 Diana, Donostiako dultzainarekin

10.00 Xake txapelketa

11.00 Haur danborrada, Jatorrena txarangak lagunduta

11.30 Esku pilota txapelketa

12.30 Herri kirolak ikastetxean. Perurena aita-semeak eta Mugerza eta Elorriaga aizkolariak

13.30 Kalejira Nerea, Maite eta Ilazki trikitilariekin

14.30 Zikiro jana, Josu Artetxe plazan

17.30 Erraldoi eta buruhandien desfilea

18.00 Astrozombies eta Demarras taldeen kontzertua, eskolako patioan

19.30 Rantxerak eta korridoiak Mexicali mariatxiarekin

21.30 Azken traka eta agurra



IRALE

**HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA**

Larratxo pasealekua 51-53 • Tel.: (943) 393921

Bertan eginak • Etxez-etxeko banaketa



GOZO ETA

BONBOI DENDA

Txirrita bertsolaria, 3 • Tel.: 943- 391605 ALTZA